

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

4955

AGINDUA, 2025eko azaroaren 12koa, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita, 2026ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorea orokorrean hobetzeko Eraikal programako laguntzetarako, eta deialdia arautzeko oinarriak onartzen baitira.

Eraikal programa Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren ekimen bat da, eta helburu du eraikuntza- eta arkitektura-kalitatearen kudeaketa sustatzea eraikinen bizitza baliagarriaren ziklo osoan, barnean hartzen dituela bai obra berria, bai ikuskapen teknikoen ondorioz birgaitzeko eta mantentzeko egindako esku-hartzeak, bai eraiste- eta birziklatze-prozesuak. Era berean, programaren helburua da ingurumenaren eta laneko arriskuen prebentzioaren aldagaia eraginkortasunez txertatzea eraikuntzaren sektorean, jasangarritasuna sustatuz eta berrikuntza babestuz Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan eta profesioaletan.

Azken batean, Eraikal programaren xedea da Euskadiko bizitegi-eraikuntzako parkearen hobekuntza integrala sustatzea, jarduketa hauek babestuz: bizitegi-eraikuntzako prozesuaren hainbat alderdiri aplikatu dakiokeen berrikuntza; jarduketa horietan sortutako ezagutza zabaltzea eta transferitzea; antolaketa- eta kalitate-kudeaketako sistemak ezartzea eta ziurtatzea sektoreko enpresa eta profesioaletan; ziurtagiri espezifikoak lortzea, bai pertsona fisiko edo juridikoentzat, bai bizitegi-eraikinetzat berentzat; prozesu industrializatuak bultzatzea etxebizitzak eraikitzeko lanetan, eta auditoretza teknikoak egitea lehendik dauden eraikinen egoera eta kalitatea ezagutzeko eta bermatzeko.

2026rako deialdian, sei laguntza-lerrotan egituratzen da Eraikal programa, aipatutako norabide horretan aurrera egiteko eta alderdi hauekin lotutako proiektuak sustatzeko:

- 1.– Bizitegi-eraikinen kontserbazio-egoera eta eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea.
- 2.– Energia-efizientzia eta eraikuntza jasangarria.
- 3.– Enpresa-kudeaketaren kalitatea eta kudeaketa-sistemak ezartzea –kalitatea, laneko segurtasuna eta osasuna, ingurumena, dokumentuen kudeaketa eta eraikinen informazioaren modelaketa (BIM) barne–.
- 4.– Eraikuntza-prozesuen industrializazioa, bereziki etxebizitza kolektibo eta babestuetan.
- 5.– Irisgarritasunaren arloko berrikuntza eta teknologia domotikoak sartzeko etxebizitzaren bizigarritasuna eta funtzionaltasuna hobetzeko.
- 6.– Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea bizitegi-eraikuntzaren sektorean.

Laguntza-deialdi honek helburu horiek lortzen laguntzen du, finantzaketa ematen baitu kudeaketa-sistemak ezartzeko antolaketa- eta enpresa-eremuetan, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntza babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean.

Helburu horietan aurrera egiteko, funtsezkoa da, alde batetik, ezagutza zorrotz eta eguneratua izatea bizitegi-parkearen egoerari eta eginda dauden esku-hartzeetan lortutako emaitzei buruz,

eta, bestetik, behar bezala aztertzea proposamen berritzaile berrien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa (proposamen horiek irtenbide teknikoak, eraikuntzakoak edo kudeaketakoak ekarri behar dituzte hobekuntza garrantzitsuak izateko eremu horretan).

Bestalde, bizitegi-eraikuntzaren eremuan, neurri handi batean, hainbat funtzio eta erantzukizun dituzten askotariko eragileen parte-hartze koordinatuaren mende dago prozesuen eta emaitzen kalitatea. Eragile hauek dira koordinatu behar dutenak: sustatzaileak, proiektugileak, eraikitzaileak, zuzendaritza fakultatiboak, gremioak, materialen hornitzaileak, laborategiak, kalitatea kontrolatzeko entitateak eta, jakina, eraikinen erabiltzaileak.

Eragileak anitzak direnez eta funtzio ezberdinak dituztenez, horiek guztiak koordinatu eta eraginkortasunez kudeatzea funtsezkoa da kalitatea bermatzeko, ez bakarrik diseinu arkitektonikoan, baita eraikinen gauzatu, kontrolatu eta mantentzeko lanetan ere.

Testuingurua hori dela, kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea eta sektoreko enpresetan etengabeko hobekuntzara bideratutako praktikak egitea funtsezkoa da lan seguruak, kalitatezkoak eta ingurumena errespetatzen dutenak egitea sustatzeko. Neurri horiei esker, behar bezala erantzun ahal izango zaie egungo gizartearen eta, bereziki, lehendik dagoen etxebizitza-parkean bizi diren pertsonen beharrez eta itxaropenei.

Etxebizitza Sailburuordetzak eraikuntza-elementuen kalitatea gainbegiratu eta arautzen du, eta esparru argia ematen die profesionali eraikinen kalitatea kontrolatzeko, berrikuntzan, energia-efizientzian eta jasangarritasunean oinarritutako ikuspegiarekin.

Helburu horiekin bat etorriz, berrikuntza bat jasotzen du 2026ko agindu honek: VI. lerroa, hain zuzen ere, irisgarritasunaren arloko berrikuntza sustatzeko bizitegi- eta hiri-eremuan. Lerro estrategiko horrek bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten eraikuntza-irtenbideak eta irtenbide digitalak garatzea sustatzen du, Eraikal programak sektorea ikuspegi inklusibo eta jasangarri batetik eraldatzeko duen konpromisoa indartuz.

Programaren helburuak eta zehaztutako laguntza-lerroen bidez horiek gauzatzeko modua gutiz datoz bat Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialarekin (2022-2036). Zehazki, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren 4. ildoak eraikuntzaren sektore erakargarri, lehiakor eta berritzailea osatzea du helburu, eta lehenengo jarraibidean sektorean berrikuntza sustatzeko eta babesteko konpromisoa ezartzen du. Sortu berri den VI. lerroarekin bat –irisgarritasunaren arloko berrikuntza–, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren 2. ildoak –Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea– bigarren jarraibidean ezartzen du araudia eta laguntza-neurriak garatu behar direla lehendik dagoen etxebizitzak duen kalitatea hobetzeko, bereziki bizigarritasunari, irisgarritasunari, energia-efizientziari eta segurtasunari dagokienez.

Era berean, XIII. Legegintzaldirako Gobernu Programak (2024-2028) konpromiso esplizituak jasotzen ditu etxebizitzaren birgaitzea eta berritzea sustatzeko, arreta berezia jarriz energia-efizientziaren, irisgarritasunaren eta eraikuntza jasangarriaren hobekuntzan (21. konpromisoa). Esparru horretan, Eraikal programa hainbat ekimenekin dator bat, besteak beste hauekin: 1. ekimena –Birgaitze-esku-hartzeak areagotzea irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunik ezaren ondorioz sortzen diren arazoak konpontzeko, horretarako dirulaguntza eta finantzaketa-lerro berriak aurreikusiz– eta 3. ekimena –Programa espezifikoak sortuz eta Europako programetan parte hartuz, etxebizitzak diseinatzeko eta eraikitzeko prozesuen berrikuntza, alokairuko etxebizitzaren sustapenak optimizatzea bereziki bideratutako ekoizpen industrializatua eta arkitektura aurreratua sustatzea, jasangarritasun-irizpideekin, energia-kontsumo nulurekin eta CO2 isurketarik ezarekin–.

Laguntza-araubide hau Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren bidez onartu zen dirulaguntzen plan estrategikoaren barruan dago jasota. Agindu horren bidez onartu zen sailaren 2025-2028 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.1 artikuluan xedatzen den bezala eta arau horretan jasotako edukiaren arabera. Aipatutako plana sei ardatz estrategikotan egituratzen da. Ardatz horiek zehaztuta daude, batetik, sailaren dokumentu programatiko sektorialetan, eta, bestetik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak XII. Legegintzaldirako «Euskadi martxan» Gobernu Programan (2020-2024) hartutako konpromisoetan.

Ardatz estrategiko horietako bat da kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea etxebizitzetan. Horixe da, hain zuzen ere, Eraikal programaren xedea, programa horren bidez laguntzak iragartzen baitira kudeaketa-sistemak ezartzeko antolaketa- eta enpresa-eremuetan, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntza babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean.

Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren konturako gastu-espeditenteen alde aurreko izapidea arautzen du, eta, hala, gastu-espeditente bat alde aurretik izapidetzea ahalbidetzen du, laguntzak eta dirulaguntzak eman aurreko ekitaldian. Laguntza-deialdi honen bidez, Eraikal programari lotutako jarduketak sustatzen dira 2026. urterako, eta, beraz, bidezkoa da alde aurretik izapidetzeko espeditentea hastea, dirulaguntzen deialdi honen helburua lortzeko.

Horrenbestez, eta lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) eta abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuak (Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) ematen didaten eskumena baliatuz, eta bat etorri Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen gainerako xedapenetan xedatutakoarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Batetik, deialdia egitea, 2026ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorea orokorrean hobetzeko Eraikal programako laguntzetarako eta, bestetik, deialdia arautzeko oinarriak onartzea. Horrela, jarduketak finantzatuko dira sei lerro haueetan: bizitegi-eraikuntzako prozesuei, materialei edo eraikuntza-soluzioei aplikatutako berrikuntza; sektorearen eraldaketa digitala eta dibulgazioa; antolaketa- eta kalitate-kudeaketako sistemak ezartzea eta ziurtatzea, bai bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzat, bai bizitegi-eraikinentzat; industrializazioa sustatzea etxebizitzaren eraikuntzan, eta irisgarritasunaren arloko berrikuntza.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Aurreikusitakoaz gain, arau hauek aplikatuko zaizkie laguntza hauei: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena, eta 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoari jarraikiz.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 12a.

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua,
DENIS ITXASO GONZÁLEZ.

I. ERANSKINA

ERAIKAL PROGRAMAREN 2026KO EKITALDIRAKO LAGUNTZEN DEIALDIA ARAUTZEKO OINARRIAK

1. oinarria.– Xedea.

Agindu honen xedea da, batetik, deialdia egitea, 2026ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorea orokorrean hobetzeko Eraikal programako laguntzetarako eta, bestetik, deialdia arautzeko oinarriak onartzea.

2. oinarria.– Araubide juridikoa.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzei Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamendua aplikatu beharko zaie; alegia, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa. Erregelamendu horren arabera, estatu kide batek enpresa jakin bati emango dizkion minimis laguntzen zenbatekoa gehienez 300.000 eurokoa izango da aurreko hiru urteetan.

3. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira bizitegi-eraikuntzaren eremuan egiten diren jarduketak, baldin eta Eraikal 2026 programaren jarduketa-lerro hauen barruan sar badaitezke:

1.1.– I. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak, alderdi hauek hobetzera bideratuak:

a) Bizitegi-eraikuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez, hauen bitartez:

Obra berrian: Eraikingintzaren Kode Teknikoa modu aurreratu eta eraginkorrean aplikatzeko aukera ematen duten proiektu edo azterlanak, eskatutako gutxienekoak gaindituta; kontrol teknikoa hobetzea, bai proiektuaren fasean, bai obrak gauzatzean; zerbitzu-probak egitea eraikuntza-sistemek eta instalazioek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko; eraikinen energia-efizientzia handitzea; kostuen kudeaketa eta obren programazioa optimizatzea; irisgarritasun unibertsala sustatzea etxebizitzetan; soluzio domotikoak txertatzea erosotasuna, segurtasuna eta jasangarritasuna hobetzeko bizitegi-eraikinetan.

Lehendik dauden eraikinetan: Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa (EIT) eta alderdi hauek ahalbidetzen dituzten proiektuak edo azterlanak egitea: eraikinaren kontserbazio-egoera ebaluatzea; eraikuntza-patologiak diagnostikatzea eta tratatzea, bai eta horiek birgaitzeko esku-hartzeak proposatzea ere; eraikin-parkearen erabilera hobetzea, mantentzea eta haren bitziza baliagarria luzatzea; energia-efizientzia handitzea; kalitatea kontrolatzeko sistemak ezartzea proiektuan eta obrak gauzatzean; kostuen eta epeen kudeaketa optimizatzea birgaitze-lanetan; irisgarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea sustatzea; arkitektura-ondarea kontserbatzeko eta babesteko azterlanak garatzea, kontuan hartuta ea bateragarriak diren birgaitzearekin, energia-efizientziarekin eta irisgarritasunarekin, ikuspegi arauemaile eta operatiboetatik.

b) Kudeaketaren kalitatea eta kalitate-sistemak ezartzea eta eraikinen informazioaren modelaketa (BIM).

c) Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasuna eta osasuna.

d) Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioak.

e) Etxebizitza berrien eta lehendik daudenen bizigarritasuna.

1.2.– II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea, oinarrietan aurreikusitako gaiekin lotuta.

Lerro honetan, helburu hauek dituzten jarduketak izango dira diruz laguntzeko modukoak:

a) I. lerroaren esparruan egindako proiektu edo azterlanetan sortutako ezagutza zabaltea eta transferitzea, hartara emaitzak, irtenbideak eta jardunbide egokiak eskuragarri eta baliagarri egon daitezen eraikuntzaren sektore osorako.

b) Kode irekiko informatikako tresnak, plataforma digitalak edo baliabide teknikoak sortzea eta garatzea, edo sortutako ezagutzarako sarbide, bistaratze edo aplikazio praktikoa errazten duten beste bitarteko batzuk.

c) Dibulgazio-kanpainak, jardunaldi teknikoak, sektoreko topaketak edo prestakuntza-ikastaroak antolatzea eta egitea, hartara bizitegi-eraikuntzaren eraikuntza-, funtzio- eta arkitektura-kalitatea hobetzeko edo irisgarritasun unibertsala eta bizi-kalitatea sustatzeko eraikitako ingurunean.

d) Bai eraikinen barruan, bai ingurune hurbilean, irisgarritasuna eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten eraikuntza-irtenbideak eta irtenbide digitalak garatzea edo aztertzea, haien inpaktuari, aplikagarritasunari edo erreplikagarritasunari buruzko azterlanak barne.

II. lerroan, kode irekiko informatikako tresna edo soluzioen garapenean oinarritutako proposamenak baino ez dira onartuko, bai diseinatzeko, bai ezartzeko. Kanpoan geratuko dira sistema, produktu edo marka partikularren publizitatea edo sustapen komertziala xede duten ekintzak.

1.3.– III. lerroa: Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.

Lerro honetan, helburu hauek dituzten jarduketak izango dira diruz laguntzeko modukoak:

a) UNE-EN ISO 19650-1:2019 arauan oinarrituta BIM erabiltzen duten eraikuntza-obretan informazioa antolatzeko eta digitalizatzeko sistema ezartzea eta ziurtatzea.

b) ISO 9001, ISO 14001 eta ISO 14006 nazioarteko normalizazio-arauetan, UNE 166002 Espainiako Arauan, EMASen eta laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 Arauan oinarritutako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea, eta horiek integratzea.

c) Normalizazioko nazioarteko arau hauetan oinarritutako kudeaketa-sistemak ezartzea eta egiaztatzea: «Entsegu-laboretegien gaitasunerako baldintza orokorrak» izeneko ISO/IEC 17025 eta «Ikuskatze-lana egiten duten hainbat motatako organismoen funtzionamendurako irizpide orokorrak» izeneko ISO/IEC 17020.

d) Energia-efizientziarekin eta jasangarritasunarekin lotuta eraikuntzaren sektoreko profesionalentzat dauden ziurtagiriak egiaztatzea, betiere Espainian erabiltzeko egokitu eta onartu diren nazioarteko aitorten-ziurtagiriak badira. Horien artean daude, adibidez, Passivhaus ziurtagiriak, Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology (BREEAM) sistemako aholkularientzako ziurtagiriak, VERDE sistema ebaluatzen dutenentzako ziurtagiriak, bai eta ENACek edo Europako organismo baliokideek egiaztatutako entitateek emandako beste ziurtagiri batzuk ere, UNE-EN ISO/IEC 17021-1:2015 edo UNE-EN ISO/IEC 17024:2012 arauen arabera.

Arestiko a), b) eta c) apartatuei dagokienez, ENAC egiaztapen-entitate nazionalak edo Europako organismo homologoak egiaztatutako egiaztapen-entitateak izanez gero, esandako entitate horiek emandako ziurtagirik bakarrik jaso ahal izango dituzte laguntzak.

1.4.– IV. lerroa: Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.

Lerro honetan, helburu hauek dituzten jarduketak izango dira diruz laguntzeko modukoak:

Energia-efizientziarekin eta jasangarritasunarekin lotuta eraikinetarako dauden ziurtagiriak ezarri eta egiaztatzea, betiere Espainiako eremura egokitu diren nazioarteko aitopen-ziurtagiriak badira. Horien artean daude, adibidez, eraikin jasangarrien LEED sailkapen-sistemaren ziurtagiria (Leadership in Energy and Environmental Design), Passivhaus ziurtagiria, Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology (BREEAM) ziurtagiria edo VERDE ziurtagiria.

1.5.– V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.

Lerro honetan, helburu hauek dituzten jarduketak izango dira diruz laguntzeko modukoak:

a) Prozesu industrializatuen ondoriozko bizitegi-eraikinen jasangarritasun-, funtzionaltasun-, malgutasun- eta espazio-prestazioen ebaluazioa.

b) Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak etxebizitzaren eraikuntza- eta industrializazio-prozesuetan.

c) Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlan konparatiboak bizitegi-erabilerako eraikinetako obretan eta etxebizitzaren eraikuntza industrializatuko prozesuetan.

d) Exekuzio materialeko kostuei buruzko azterlan konparatiboak bizitegi-erabilerako eraikinetako obretan eta etxebizitzaren eraikuntza industrializatuko prozesuetan.

e) Etxebizitza babestuen industrializazioari buruzko azterlanak, kasuen azterlanak eta proiektu espezifikoak, EAEko araudiaren arabera.

f) Etxebizitzaren bizigarritasunari buruzko azterlanak, oso industrializatutako prozesuen ondorioz.

g) Moduluen, eraikinen edo eraikin pilotuen zatien prototipoak egitea eta fabrikatzea, horiek aztertzeko eta modu esperimentalean monitorizatzeko.

1.6.– VI. lerroa: Irisgarritasunaren arloko berrikuntza.

Lerro honetan, helburu hauek dituzten jarduketak izango dira diruz laguntzeko modukoak:

a) Irisgarritasuna hobetzeak bizitegi-parkean, etxebizitzan eta ingurunean duen inpaktuari buruzko azterlanak.

b) Irisgarritasuna hobetzeko irtenbideak aplikatzeari buruzko edo arrazoizko egokitzapenei buruzko azterketa konparatuak.

c) Irisgarritasuna hobetzeko helburuz arkitektura-produktuak, eraikuntza-irtenbideak edo inguruneari aplikatutako sistema eta produktuak diseinatzea, prototipoak egitea eta fabrikatzea. Pilotuak, aztertzeko eta monitorizazio esperimentala egiteko.

d) Etxebizitzak eta haien inguruneak birgaitzean irisgarritasuna hobetzeko eraikuntza-irtenbideak diseinatzea, prototipoak egitea eta fabrikatzea.

e) IKT aplikazioak garatzea bizitegi-eraikinen eta haien inguruen irisgarritasuna hobetzeko.

2.– Jarduketa hauek ez dira diruz laguntzeko modukoak izango:

a) Ziurtagiriak mantentzea edo berritzea, ez eta ziurtagiriak arauen bertsio berrietara egokitzea ere.

b) Ekipamendua eskuratzea edo horren amortizazioak.

d) Enpresa batera berariaz bideratutako ekimenak edo patente bat lortzeko xedea dutenak.

4. oinarria.– Diruz laguntzeko moduko gastuak.

1.– Agindu honen esparruan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera hartuko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat. Betiere, dirulaguntzari buruzko araudian gastuak justifikatzeko ezarri den epea amaitu aurretik benetan ordaindu den gastua hartuko da egindako gastutzat.

2.– I., II. eta III. lerroen kasuan, jarduketa hauen ondoriozko gastuak dira, batez ere, diruz lagundu daitezkeenak: berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak idaztea; informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea; bizitegi-erakuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.

3.– IV. lerroaren kasuan, diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira dirulaguntzaren xede den jardueraren izaerari erantzuten diotenak, bereziki kalitatearen, jasangarritasunaren edo energia-efizientziaren ziurtagiriak lortzetik eratorritakoak, hala nola saiakuntzak, zerbitzuko probak edo beharrezkoak diren beste jarduketa tekniko batzuk, baldin eta gastu horiek ezin badira eskatu nahitaez bete beharreko arau-eskakizunen arabera.

4.– V. eta VI. lerroen kasuan, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira prototipoak egitetik eratorritako gastu guztiak, hala nola exekuzio materiala, saiakuntzak eta zerbitzuko probak.

5.– Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko jarduketari oro har aplikatu dakizkiokeen zergak. Hala ere, balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko da laguntza eskatu duen pertsonak ordaindu duen eta jasanarazi ezin duen zenbatekoa.

5. oinarria.– Diruz lagundutako jarduketak kontratatzea.

1.– Diruz lagundutako jardueraren % 100 ere kontratatu dezake onuradunak. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontratazioa badagoela ulertuko da pertsona onuradunak hirugarren batzuekin hitzartu badu dirulaguntzaren helburu den jarduera osorik edo haren zati bat gauzatzeko zeregina. Ez da kontrataziotzat hartuko diruz lagundutako jarduera onuradunak bere kabuz gauzatzeko beharrezkoak diren ondasunak edo zerbitzuak eskuratzea.

2.– Onuradunak ezin izango du pertsona edo entitate hauekin kontratatu diruz lagundutako jardueren zatirik:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan zehaztutako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo entitateekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, baldin eta haien ordainsaria zehazteko oinarri bakarra diruz lagundutako eragiketaren kostu osoaren ehuneko bat bada, salbu eta berariaz justifikatzen bada ordainketa hori bat datorrela benetan egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatu-

balioarekin.

d) Onuradunarekin loturaren bat duten pertsona edo entitateekin, baldin eta onuradunak harreman esanguratsuren bat badu haiekin, egoera hauetan izan ezik:

1) Organo emailearen berariazko baimena lortzen denean aldez aurretik.

2) Diruz laguntzeko moduko zenbatekoa ez denean lotutako entitateak izandako kostua baino handiagoa. Kostua egiaztatzeko, onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarrita dauden baldintza berberak justifikatu beharko dira.

e) Deialdi eta programa honetan bertan laguntza edo dirulaguntza eskatu duten baina betekizunak ez betetzeagatik edo behar ziren gutxieneko puntuak ez lortzeagatik onuradun izan ez diren pertsona edo entitateekin.

f) Deialdi eta programa honetan bertan, era berean, laguntza edo dirulaguntzaren onuradun izan diren pertsona edo entitateekin.

6. oinarria.– Diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko epea.

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi beharko dira eta, beranduenez, 2028ko ekainaren 30erako amaitu.

7. oinarria.– Laguntzen onuradunak.

1.– I., III., V. eta VI. lerroak: Onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden pertsona edo entitateak eta diruz lagundutako jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duten pertsona edo entitateak, edonon dagoela ere haien egoitza soziala edo establezimendu fisikoa, betiere jarduketak inpaktu ekonomiko zuzena eragiten badu eremu horretan eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Enpresa edo profesionalak izatea, eta haien jarduera ofizialki inskribatuta egotea, zerga-ondorioetarako, ekonomia-jardueren gaineko zergan bizitegi-eraikuntzaren eremuarekin lotutako sektoreen bateko epigrafe batean, eta zehazki epigrafe hauetakoren batean:

833.2) Higiezinaren sustapena.

50) Bizitegi-erabilerako eraikinak eraikitzea, obra berrikoak nahiz birgaitze- eta mantentze-obretakoak. Barnean dira eraikuntza-obretako instalazio elektrikoak, iturgintzakoak eta beste jarduera batzuk; eraikinen akabera, eta beste eraikuntza-jarduera espezializatu batzuk.

843) Arkitektura- eta ingeniari-tza-zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin zerikusia duten bestelako jarduerak. Epigrafe honetan, arkitektoen estudioak, aparejadoreen estudioak eta ingeniari-tzako eta topografiako zerbitzuak bakarrik izan daitezke parte-hartzaile. Ingeniari-tzako estudioek egiaztatu beharko dute deialdi hau argitaratu aurreko hiru urteetan gutxienez bi lan egin dituztela bizitegi-eraikuntzaren arloko proiektuei, aholkularitza edo txostenei buruz.

b) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entitateak eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntza-laborategiak badira, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren aurrean, bat etorri Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entitateek eta saiakuntza-laborategiek beren jardueran aritzeko bete behar dituzten baldintzak garatzen dituen martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuarekin eta Eraikuntzako kalitate-kontrola arautzeko urriaren 28ko 209/2014 Dekretuarekin. Adierazpen horren bidez, entitate horiek jakinarazten dute bete egiten dituztela beren jardueran aritzeko bete behar dituzten baldintzak, eta beren gain hartzen dute jarduera egin bitartean baldintza horiei eusteko erantzukizuna.

c) Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresen eta profesionalen taldeak edo elkarteak badira, nortasun juridikoa izan zein ez, ordezkari-tza zabala izatea sektorean edo deialdi-gaitasun aitortua izatea eraikuntzaren arloko eragileak mobilizatzeko eta biltzeko, lankidetzak-proiektuak bultzatzeko, ezagutzak zabaltzeko, jardunbide egokiak sustatzeko edo baterako jarduketak garatzeko. Halakotzat hartuko dira, besteak beste, entitate hauek: bizitegi-eraikuntzaren sektoreari lotutako elkargo profesionalak, ikerketa teknologikoko zentroak, merkataritza-ganberak, eraikuntza-arloko klusterrak eta hirigintza-sozietateak.

2.– II. lerroa: II. lerroari dagokionez, agindu honetan ezarritako laguntzen onuradun izan ahalko dira bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresen eta profesionalen taldeak edo elkarteak, nortasun juridikoa izan zein ez, EAEn kokatuta egonda, ordezkari-tza zabala badute sektorean edo deialdi-gaitasun aitortua badute eraikuntzaren arloko eragileak mobilizatzeko eta biltzeko baterako ekimenen inguruan. Horiez gain, agindu honetan II. lerroari dagokionez ezarritako laguntzen onuradun izan ahalko dira diruz lagundutako jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen dutenak, edonon dagoela ere haien egoitza soziala edo establezimendu fisikoa, betiere jarduketak inpaktu ekonomiko zuzena eragiten badu eremu horretan, eta ordezkari-tza zabala badute sektorean edo deialdi-gaitasun aitortua badute eraikuntzaren arloko eragileak mobilizatzeko eta biltzeko baterako ekimenen inguruan. Halakotzat hartuko dira bizitegi-eraikuntzaren sektoreari lotutako elkargo profesionalak, ikerketa teknologikoko zentroak, merkataritza-ganberak, eraikuntza-arloko klusterrak eta hirigintza-sozietateak.

Egoitza soziala edo establezimendu fisikoa EAEn ez duten entitateek egiaztatu egin beharko dute diruz lagundutako jarduerak inpaktu ekonomiko zuzena eragiten duela lurraldean, bide hauetakoren bat erabiliz alderdi hauek justifikatzeko:

1) Jarduketa materialak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko direla.

– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ondasun higiezinetan zuzeneko esku-hartzea dakarten obra- edo zerbitzu-kontratuak.

– Lurraldean kokatutako higieziinei dagozkien katastroko ziurtagiriak, eskriturak edo oniritzidun proiektuak.

2) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresak edo profesionalak kontratatuko dituztela:

– Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten eragile ekonomikoekin (eraikuntza-enpresak, arkitekturako edo ingeniari-tzako estudioak, etab.) egindako azpikontratazioen edo lankidetzak fakturak, kontratuak, nominak edo beste egiaztagiri batzuk.

3) Zuzeneko enplegua sortuko dela Euskal Autonomia Erkidegoan:

– Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzeko kontratatutako langileen zerrenda, zerbitzua non emango den zehaztuz.

– TC2 agiria edo baliokidea, langileak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan afiliatuta daudela egiaztatuz.

4) Aurrez aurreko jarduerak antolatuko direla Euskal Autonomia Erkidegoan:

– Zabalkunde-, prestakuntza- edo dibulgazio-jarduketan kasuan: Euskal Autonomia Erkidegoan egin izanaren egiaztagiriak (programak, inskripzioak, aktak, argazkiak, etab.).

5) Jarduketa gauzatu bitartean, aldi baterako egoitza edo ordezkaritza erkidegoan izango dutela:

– Diruz lagundutako jarduketari lotuta Euskal Autonomia Erkidegoan izango duen aldi baterako establezimenduaren egiaztatzea (obrarako lokala, bulego teknikoa, etab.).

3.– IV. lerroa: IV. lerroaren kasuan, onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eraikinak sustatzen dituzten eta eraikuntzaren kalitatearen, jasangarritasunaren edo energia-efizientziaren ziurtagiri aitortua lortzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak. Horren barruan sartzen dira, batetik, sustapen hori bizitegi-eraikuntzaren sektorean duten jardueraren zati gisa egiten dutenak –kasu horretan, ekonomia-jardueren gaineko zergaren 833.2 epigrafean egon beharko da inskribatuta jarduera– eta, bestetik, norberaren erabilerarako diren familia bakarreko etxebizitzetara dagozkien jarduketa pribatuak sustatzen dituztenak.

4.– Pertsona hauek ezingo dira onuradun izan:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan edo hura ordeztzen duen araudian zehaztutako debekuren bat duten pertsona fisiko edo juridikoak.

b) Onuradun izateko ezgaitzen duen legezko debekuren bat duten entitate edo pertsonak, berriaz barnean direla sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.– Deialdi honetako eskabidea pertsona fisikoen edo juridikoen talde batek egiten duenean (nortasun juridikorik gabeko pribatua edo publikoa izan), Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluari jarraikiz, taldeko kide guztiek bete beharko dituzte laguntzen onuradun izateko eska daitezkeen baldintza guztiak.

Halaber, ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko du taldeak, zeinak notario-ahalorde nahikoa izango duen taldeari onuradun gisa dagozkion obligazioak bere gain hartu eta betetzeko.

Taldea ezingo da desegin, harik eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 43. artikuluan xedatutako preskripzio-epea igaro arte.

6.– Eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Egoera hori automatikoki egiaztatuko da, bai dirulaguntza ematen den unean, bai, hala badagokio, dirulaguntza ordaintzen denean, eta ez da eskatzailearen berriazko baimenik behar izango horretarako, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dena dela, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du egiaztatze-lan hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiria aurkeztu beharko du, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.3 artikuluan xedatutakoaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da agindu hori–.

Era bereraren, aurreko dirulaguntzak organo emaileari berreskuratzetik eratorritako betebeharrak ere ordainduta eduki beharko ditu eskatzaileak.

Apartatu honetan jasotako betekizunak indarrean izango dira, harik eta emandako dirulaguntza guztiz likidatu arte.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo da pertsona edo entitate onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Horretarako, agindu honen eranskin gisa jaso den eredu normalizatua erabiliko da.

8. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Laguntzen eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Honela aurkeztu beharko dira laguntza-eskabideak:

a) Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta nahitaez elkargokide izan behar duten jarduera profesionalen bat egiten dutenek bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dituzte deialdi honekin lotutako izapide guztiak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri eskabide-inprimakiak, horiek izapidetzeko zehaztapenak eta erantzukizunpeko adierazpenak, esteka hauetan, hain zuzen ere:

– 1. lerroa:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1039832>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039832>

– 2. lerroa:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1039833>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039833>

– 3. lerroa:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1039834>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039834>

– 4. lerroa:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1039835>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039835>

– 5. lerroa:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1039836>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039836>

– 6. lerroa:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1039837>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1039837>

Eskabidea elektronikoki aurkeztu ondorengo izapideak –jakinarazpenak eta justifikazioak barne– «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Ordezkaritza bidez ere egin ahal izango da izapidetze elektronikoa. Ordezkaritza egiaztatze, esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>

Pertsona fisikoek, bestalde, bide elektronikoa edo aurrez aurrekoak erabili ahal izango dituzte, nahieran, deialdi honetan eskabidea aurkezteko zein gainerako izapideak kontsultatu edo bideratzeko. Momenturen batean bide bat zein bestea hautatzeak ez du esan nahi nahitaez bide horretatik jarraitu behar denik prozeduraren gainerako izapideetan, edozein unetan alda daitezke-eta, Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 17. artikuluan xedatzen den moduan.

Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

Aurrez aurreko bidea:

Pertsona fisikoek hemen aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak aurrez aurre:

Zuzenean Zerbitzuan, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta. Hitzordua eskatzeko, <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> web-orrian eskuragarri dagoen inprimakia bete edo 945 01 90 00 telefono-zenbakira deitu daiteke.

Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro laguntzaileetan. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan daude zerrendatuta erregistro horiek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen diren organoetako batean.

Bide elektronikoa:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartuta aurkeztu ahal izango dira eskabideak, 8.2 oinarrian adierazten diren helbideak erabiliz.

Helbide honetan eskuratu daitezke Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

Ordezkaritza bidez ere egin ahal izango da izapidetze elektronikoa. Ordezkaritza egiaztatze, esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>.

3.– Deialdi honen xede diren diruz laguntzeko moduko lerro batean ere ez zaio emango dirulaguntza bat baino gehiago pertsona eskatzaile berari.

Pertsona batek bi jarduketa-proiektu edo gehiagorako laguntza eskatzen badu, dirulaguntza-lerro berean, honela jokatu da:

a) I., II., V. eta VI. lerroetan, dagokion balorazio-fasean puntuaziorik handiena lortzen duen proiektua bakarrik hartuko da kontuan. Proiektu batek baino gehiagok puntuazio bera lortzen badute, lehenengo erregistratutako eskabidean jasotakoari emango zaio lehentasuna. Eskabide horretan proiektu bat baino gehiago sartu baziren, lehenengo agertzen dena hartuko da kontuan.

b) III. eta IV. lerroetan, sarrera-erregistroaren arabera lehenengo aurkeztutako eskabidean jasotako proiektua hartuko da kontuan. Eskabide horretan proiektu bat baino gehiago sartu baziren, lehenengo agertzen denari emango zaio lehentasuna.

4.– Interesdunek euskaraz nahiz gaztelaniaz, nahi bezala, aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentuak. Era berean, prozedura osoan zehar, pertsona edo entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

5.– Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak zorrotz beteko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduan (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako printzipio, berme eta segurtasun-neurriak.

9. oinarria.– Eskabidearen edukia eta eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

1.– Erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko zaio eskabideari. Agindu honen II. eta III. eranskinetan daude bai eskabide-inprimakia, bai erantzukizunpeko adierazpena.

2.– Horretarako prestatutako plataforma elektronikoen bidez aurkezten diren eskabideak eta erantzukizunpeko adierazpenak elektronikoki sinatuta daudela ulertuko da. Laguntza-eskabidea aurrez aurre aurkezten bada, eskatzaileak behar bezala sinatuta aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena eskabidearekin eta dokumentazioarekin batera.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, dokumentazio jakin baten ordezkariaren eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da hasieran; hala ere, nahitaez aurkeztu beharko da dokumentazio hori prozedura ebatzi baino lehen, pertsona edo entitate eskatzailea onuradun izateko proposatzen bada. Adierazpen horren bidez, pertsona edo entitate eskatzaileak bere erantzukizunpean adierazten du eskabidea egiteko unean bete egiten dituela onuradun izateko eskatzen diren baldintzak. Hona hemen:

a) Ez duela galdu, epai irmo bidez, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera, eta ez dutela kondenatu delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Ez duela borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu, ez dela kaudimengabetzat deklaratu izan prozedura batean ere, ez eta konkurtsoan deklaratu ere –salbu eta bertan hitzarmen bat eraginkor bihurtu bada–, eta ez dagoela inongo esku-hartze judizialen pean edota desgaituta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, artean konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe izanik.

c) Ez dela errudun deklaratu izan administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazte irmoa eragiteagatik.

d) Ez dagoela lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo ez dela Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargua, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Egunean dituela indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehazten den moduan.

f) Ez daukala egoitza fiskala indarrean dagoen araudiaren arabera zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.

g) Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen eremuan hasi eta oraindik izapidetzen ari den dirulaguntzak organo emaileari berreskuratzeko prozedura edo zehapen-prozeduraren batean; edo, aldiz, badagoela sartuta halako prozeduraren batean, eta izapidetzen ari dela –xede zehaztu behar da–.

h) Ez duela jaso, ebazpen irmo bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapenik, lege honetan edo besteren batean oinarrituta. Ez duela zehapenik jaso, ez administratiboki ez penalki, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldian. Indarrean daukala Estatuko araudiaren arabeko berdintasun-plan bat; halaber, 50 langile baino gehiago baditu, egiaztatu duela neurriak ezarri dituela sexu-jazarpena edo sexuagatik jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.

i) Ez duela zehapenik jaso Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, salbu eta neurri zuzentzaile egokiak gauzatu baditu eta zehapena ordaindu badu.

j) Bete duela desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota, edo egiaztatu duela neurri alternatiboak abiarazi dituela hori bete dadin.

k) Ez duela eskatu, ezta lortu ere, dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik laguntza hau eskatzen den helburu bererako beste administrazio edo entitate publiko edo pribaturen batetik. Edo, aldiz, bai eskatu edo lortu duela halako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik; halakoetan, berariaz adierazi behar da zer zenbateko eskatu diren eta zer zenbateko eman diren, eta ea BEZa diruz lagundu daitekeen gastutzat hartu den programa horietan.

l) Aurreko hiru urteetan ez duela laguntzarik lortu Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduari lotuta –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa–. Laguntzarik jaso badu, laguntza horien zenbatekoa..... eurokoa dela.

m) IV. lerroaren kasuan, laguntza eskatzen duen pertsonak edo entitateak sustatu beharko du dirulaguntzaren xede den eraikinaren eraikuntza.

n) Konpromisoa hartu duela enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

o) Eskabidea aurkezteko momentuan bete egiten dituela oinarri hauetan ezarrita dauden baldintzak; badaukala aitortutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa; Administrazioaren eskura jarriko duela hala eskatzen zaionean, eta konpromisoa hartzen duela baldintzak betetzen jarraitzeko eskubidea aitortzen zaion bitartean.

p) Badakiela aitortutako informazio edo datuetan funtsezko zehaztasunik eza, faltsukeria edo omisiorik egotekotan, edo eskatutako dokumentazioa edo erantzukizunpeko adierazpena bera Administrazioari aurkeztu ezean, bertan behera gelditu ahal izango direla eskubidea edo jarduera, gertakari horiek jakiten diren unetik, hargatik eragotzi gabe ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

q) Badakiela Administrazioak ahalmenak dituela aitortutako datuak eta dokumentuak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko.

Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpenean esandakoak berresteko, dokumentuak aurkeztu edo egiaztatu beharko dira prozedura ebatzi aurretik, dirulaguntzen araubideari eta izapidetze elektronikoi buruzko araudiaren arabera.

2.– Eskabidea egiten duen entitatearen ezaugarriak eta burutu nahi den jarduera kontuan harturik, eskabide guztiakin batera, ezinbestez, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proiektuaren memoria, gutxienez alderdi hauek jasotzen dituen:

1) Jarduera guztietarako:

Sarrera: sustatzailearen deskribapen orokorra, enpresaren antolaketa-egituraren zirriborroa eta proposatutako proiektuaren helburu orokorrak.

2) I. lerroan –Berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak– eta II. lerroan –Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea– bildutako jarduketetarako, alderdi hauek ere zehaztu beharko ditu memoriak:

– Proposatutako jarduketaren deskribapen xehatua, proiektuan jasotako jarduera bakoitza zehaztuta.

– Proposamena lan-lerroetako batera egokitzen dela egiaztatzeko dokumentua.

– Sektorerako egokitasun, aukera eta zuzentasunari buruzko balorazioa.

– Proiektuak sektorean izan dezakeen inpaktuaren azterketa, adierazleak eta neurketa-mekanismoak barne.

– Proiektu- edo azterlan-taldearen kalitate teknikoa eta zientifikoa, baita esperientzia ere.

– Aurreikusi den finantzaketa-eskema.

– Helburu espezifikoak eta proiektua garatzeko proposatutako gauzatze-epeak.

3) III., IV., V. eta VI. lerroetan aurreikusten diren jarduketetarako, helburuak eta proiektua garatzeko proposatutako gauzatze-epeak zehaztu beharko ditu memoriak.

b) Diruz laguntzeko moduko jarduketaren aurrekontu zehatza, laguntza eskatzen den jarduketa-lerroari lotuta. Aurrekontua urteka banakatu beharko da (2028ra arte), bai eta ataza edo jardueren arabera ere. Ataza bakoitzean, bereizi egin beharko dira barne-gastuak (proiektua zuzentzen duen eragilearen beraren gastuak) eta kanpoko edo kontratatutako gastuak (kanpo entitateek emandako zerbitzuei buruzkoak).

Barne-gastuei dagokienez, egin beharreko zereginen aurreikuspena zehaztu beharko da, baita baliatutako ordu-tarifaren egozpena ere.

Kanpoko edo kontratatutako gastuen kasuan, kostuaren zenbatespen arrazoitu bat aurkeztu beharko da, edo, ahal dela, kapitulutan eta partidetan zehaztutako aurrekontu bat. Kontratazio horrek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 31 artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

Eskabidea III. edo IV. lerroetako bada, hau da, aholkulari edo ziurtatzaile espezializatuen esku-hartzea eskatzen duten jarduketetara bideratuta badago, dagokion aholkularitzak edo ziurtatzaileak egindako eskaintza zehatza jaso beharko du eskabidearekin batera aurkezten den aurrekontuak.

Aurkeztutako aurrekontuari dagokionez, eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoa zehazteko, adierazi beharko da ea aurrekontuan jasotako zenbatekoek balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) barne hartzen duten.

Eskatzaileak ezin badu balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa jasanarazi, salbuespen-araubidea aplikatzeko beharra egiaztatzeke ogasun eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du, edo 390 ereduaren kopia. BEZaren zati bat berreskuragarria bada, proportzionalki egotzi beharko da gastu hori, amaitutako azken urterokoari dagokion hainbanaketa-ehunekoa aplikatuz, dagokion foru-ogasunak emandako dokumentu ofizialean agertzen den bezala.

c) Diruz lagundutako jardueraren eredugarritasuna hedatzeko, jakinarazteko eta indartzeko ekintza-plana.

3.– Laguntza-eskabidea ingeniartzako estudio batek egiten duenean, dagokion ingeniariaren elkargo profesionalaren ziurtagiria aurkeztu beharko da eskabidearekin batera. Ziurtagiri horrek egiaztatu beharko du gutxienez bi lan egin dituela, deialdiaren aurreko hiru urteetan, bizitegi-erakuntzaren arloko proiektuei, aholkularitzari edo txostenei lotuta.

4.– Laguntza-eskabidea pertsona fisiko zein juridikoen talde batek egin badu, nortasun juridikorik gabeko pribatua edo publikoa izan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluari jarraikiz, eskabidean zehatz adierazi beharko da zer gauzatze-konpromiso hartu duen taldekide bakoitzak, bai eta dirulaguntzaren zenbateko osotik zein zati dagokion bakoitzari ere, konpromiso horiek kontuan hartuta. Kide guztiak hartuko dira onuraduntzat. Taldearen ordezkariak sinatu beharko du eskabidea, eta izendapena egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu.

10. oinarria.– Eskabideak zuzentzea.

1.– Laguntza kudeatzen duen organoak eskabidean akats edo hutsegiteren bat dagoela edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta dela ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango, akatsa zuzendu edo dokumentua aurkez dezan. Adieraziko zaio, halaber, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela ebazpen bidez. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoaren arabera eman beharko da.

2.– Eskabidea elektronikoki egin behar duenak aurrez aurre aurkezten badu, eskatzaileari eskatuko zaio zuzen dezala, elektronikoki aurkeztuta. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskabidearen aurkezpen-datatzat.

3.– Era berean, eskabidea izapidetzeko onartu ondoren, aurkeztutako proiektua behar bezala baloratzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio gehigarri eskatu ahal izango dio entitate eskatzaileari dirulaguntzak kudeatzeaz arduratzen den organoak. 10 eguneko epea egongo da informazio hori aurkezteko. Epe horretan ematen ez bada, eskatutako informazioa kontuan hartu gabe ebaluatuko da proiektua.

11. oinarria.– Laguntzak kudeatzen dituen organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketa-lanak egitea eta aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea.

12. oinarria.– Adjudikazio-prozedura.

1.– Dirulaguntza-lerro bakoitzerako ezarritako prozedura espezifikoaren arabera izapidetuko dira eskabideak.

2.– I., II. eta V. lerroetako dirulaguntzak norgehiagoka bidez adjudikatuko dira, eta lehiaketa bidez kuantifikatuko dira, puntuazio handienetik txikienera, lerro bakoitzeko aurrekontu-kreditua agortu arte, inola ere gainditu gabe agindu honetan ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoa. I., II. eta V. lerroetan diruz lagun daitekeen jarduketatzat hartzeko gutxieneko puntuazioa 50 puntukoa da.

3.– III. lerroko dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleituko dira. Lerro honetan erabilgarri dagoen kreditua banatzeko irizpide operatibo bat ezartze aldera, lehentasuna ematen zaio BIM metodologian oinarritutako informazioa antolatzeko eta digitalizatzeko sistemak ezartzeari, UNE-EN ISO 19650-1:2019 arauaren arabera. Lehentasun horren oinarria da sistema horiek egiturazko aldaketak eta aldaketa sistematikoak sartzan dituztela sektoreko eragileen kudeaketa-prozesuetan, informazioa kudeatzeko metodologia kolaboratibo eta integratua txertatzen baitute eraikitako aktiboaren bizi-zikloan zehar. Hori aplikatzeak hobekuntza nabarmena dakar eraikuntza-prozesuen trazabilitatean, koordinazioan, elkarrengarritasunean, efizientzian eta kalitate-kontrollean, eta, beraz, antolaketa-eraldaketa sakon eta jasangarria ekartzen du horrek.

Laguntza-lerro honetan ezarritako lehentasuna ez dator bat 3.1.1.3 oinarrian jasotako sistemen edo ziurtagirien arteko balorazio tekniko hierarkiko batekin, horiek guztiak egiaztatutako entitate ziurtatzaileek aitortu eta baliozkotu baitituzte. Ildo horretan, ez da uste oinarri tekniko nahikoa dagoenik haien artean nagusitasun intrintseko edo objektibo bat ezartzeko, kalitate teknikoko irizpideen araberrako antolamendua justifikatzen duena. Hala ere, uste da BIM metodologiak irismen estrategiko handiagoa duela sektorea modernizatzeko.

Lehentasun horretatik abiatuta, beherantz jarraituko du lehentasun-ordenak, ezarritako sistema ziurtatuen kopuruaren arabera.

Aipatutakoaren ondorioz, lehentasun-ordena honen arabera esleituko dira III. lerroko laguntzak, aurrekontu-zuzkidura agortu arte:

– Lehenengo, lehentasuna emango zaie UNE-EN ISO 19650-1:2019 arauan oinarritutako sistemak ezartzeko eta ziurtatzeko jarduketei, lehentasunezko jardueratzat hartzen baitira agindu honen esparruan.

– Bigarren, hurrenkera honetan, diruz lagundu daitezkeen beste jarduketa batzuei dagozkien eskabideei erantzungo zaie, lehentasun honen arabera:

- 3.1.1.3 oinarriko b) eta c) apartatuetako hiru sistemaren ziurtapena.
- 3.1.1.3 oinarriko b) eta c) apartatuetako bi sistemaren ziurtapena.
- 3.1.1.3 oinarriko b) eta c) apartatuetako sistema baten ziurtapena.
- Ziurtagiriak egiaztatzea 3.1.1.3 oinarriko d) apartatuaren arabera.

4.– IV. lerroko dirulaguntzak norgehiagoka bidez adjudikatuko dira, harik eta laguntza-lerro horretara bideratutako aurrekontu-zuzkidurak agortu arte. IV. lerroari dagokionez ere, ez da uste oinarri tekniko nahikoa dagoenik haien artean nagusitasun intrintseko edo objektibo bat ezartzeko, kalitate teknikoko irizpideen araberrako antolamendua justifikatzen duena. Dagoen zuzkiduraren zenbatekoa ez bada nahikoa eskabide guztiei erantzuteko, proportzionalki hainbanatuko da zuzkidura eskabideen artean.

13. oinarria.– Balorazio-irizpideak.

I., II., V. eta VI. lerroetako dirulaguntzak jarraian zerrendatutako irizpideen arabera adjudikatuko dira, kasu bakoitzean zehaztutako haztapena kontuan hartuta:

1.– I. lerroa: Berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak.

1.– Balorazio-irizpidea:	Proposamenaren egokitasuna eta kalitatea
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Proiektuak baloratzeko, apartatu hauetako bati buruzkoak izan beharko dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bizitegi-eraikuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez. – Obra berria: EKT (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) aplikatzea, proiektuaren kontrola, obra gauzatzea eta zerbitzu-probak. Eraikinen energia-efizientzia. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. – Lehendik dauden eraikinak: eraikinen kontserbazio-egoera, Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT), eraikinen patologia, birgaitzea, erabilera eta mantentze-lanak, eta bizitza baliagarria. Eraikinen energia-efizientzia. Proiektuaren eta obraren kalitate-kontrola. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. Ondarearen kontserbazioari eta babesari buruzko azterlanak, eta birgaitzearekin, energia-efizientziarekin eta irigarritasuna hobetzearekin bateragarriak diren aztertzea, araugintzaren aldetik nahiz alderdi operatiboan. – Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioei buruzko azterlanak. – Etxebizitza berrien eta lehendik daudenen bizigarritasunari buruzko azterlanak. <p>Gehienez 20 puntu emango dira proiektua Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren jarduketa-lerroetara egokitzeagatik. Horretarako, alderatu egingo da ea proposatutako jarduketa bat datorren sailak proposamenean deskribatutako jarduketa-lerro berean egindako azterlan edo analisiekin, edo ea laguntzen programa honen esparruan aurretik laguntzak jaso dituzten proposamenekin jarraitzen duten proiektuak diren.</p>	
2.– Balorazio-irizpidea:	Sektorean izan dezakeen inpaktua
Gehieneko puntuazioa:	6 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Proiektu hau abian jartzeak ekar ditzakeen zientzia- eta teknologia-abantailen onura jaso dezaketen populazio-sektoreak, profesionalak eta enpresak. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p> <p>Bat etortzea herrialdeko sektoreek, kluster elkarteek edo enpresa-talde handiek identifikatutako beharrekin eta aukerekin. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p>	

3.– Balorazio-irizpidea:	Proiektu- edo azterlan-taldearen kalitate teknikoa eta zientifikoa.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
<p>Balorazio-elementuak: Ikerketa-taldearen dimentsioa, proposatutako lanean taldearen gaitasuna bermatzeko estimatutako masa kritikoari eta kideen dedikazioari dagokienez. Taldean doktoreak, master-tituludunak edota proiektuaren alorrean saritutako teknikariak izatea baloratuko da, baita erreferentziako unibertsitate edo zentro entzutetsuetan esperientzia izatea ere. Halakorik izan ezean, argitaratutako antzeko lanak egin izana baloratuko da, edota laguntzak jaso izana. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.</p> <p>Eskura dituzten ekipamendua eta azpiegiturak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.</p> <p>Enpresa-elkarteak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.</p>	
4.– Balorazio-irizpidea:	Koherentzia eta zorrotasuna lanaren aurkezpenean
Gehieneko puntuazioa:	36 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Lanaren helburua azaltzeko memoria. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.</p> <p>Lan-programaren bideragarritasuna. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.</p>	
5.– Balorazio-irizpidea:	Finantzaketaren eskema
Gehieneko puntuazioa:	18 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Aurreikusitako aurrekontuaren tamaina: proiektuan aurreikusita dauden helburu eta jarduerekin bat etorri beharko du. Gehieneko puntuazioa: 12 puntu.</p> <p>Babesle pribatuek dirua jartzeko konpromisoa. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta beste administrazio batzuetako sailek edo enteek aurreikusita daukaten finantzaketa osagarria. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p>	
Guztira	100 puntu

2.– II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea.

1.– Balorazio-irizpidea:	Proposamenaren egokitasuna eta kalitatea
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Proiektuak baloratzeko, apartatu hauetako batean inskribatu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bizitegi-eraikuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez. – Obra berria: EKT (Eraikuntzaren Kode Teknikoa) aplikatzea, proiektuaren kontrola, obra gauzatzea eta zerbitzu-probak. <p>Eraikinen energia-efizientzia. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lehendik dauden eraikinak: eraikinen kontserbazio-egoera, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoak (EIT), eraikinaren patologia, birgaitzea, erabilera eta mantentze-lanak, eta bizitza baliagarria. Eraikinen energia-efizientzia. Proiektuaren eta obraren kalitate-kontrola. Kostuen kudeaketa eta programazioa. Irigarritasuna eta soluzio domotikoak ezartzea. Ondarearen kontserbazioari eta babesari buruzko azterlanak, eta birgaitzearekin, energia-efizientziarekin eta irigarritasuna hobetzearekin bateragarriak diren aztertzea, araugintzaren aldetik nahiz alderdi operatiboan. – Industrializazioa. Eraikinen jasangarritasunaren, funtzionaltasunaren, malgutasunaren eta espazioaren arloko prestazioen ebaluazioa. – Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak. – Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioei buruzko azterlanak. – Etxebizitza berrien eta lehendik daudenen bizigarritasunari buruzko azterlanak. <p>Gehienez 20 puntu emango dira proiektua Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren jarduketa-lerroetara egokitzeagatik. Horretarako, alderatu egingo da ea proposatutako jarduketa bat datorren sailak proposamenean deskribatutako jarduketa-lerro berean egindako azterlan edo analisiekin, edo ea laguntzen programa honen esparruan aurretik laguntzak jaso dituzten proposamenekin jarraitzen duten proiektuak diren.</p>	
2.– Balorazio-irizpidea:	Sektorean izan dezakeen inpaktua
Gehieneko puntuazioa:	15 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Proiektu hau abian jartzeak ekar ditzakeen zientzia- eta teknologia-abantailen onura jaso dezaketen populazio-sektoreak, profesionalak eta enpresak. Gehieneko puntuazioa: 8 puntu.</p> <p>Bat etortzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreek, kluster elkarteek edo enpresa-talde handiek identifikatutako beharrek eta aukerekin. Gehieneko puntuazioa: 7 puntu.</p>	

2025eko azaroaren 20a, osteguna

3.– Balorazio-irizpidea:	Koherentzia eta zorroztasuna lanaren aurkezpenean
Gehieneko puntuazioa:	36 puntu
Balorazio-elementuak:	
Lanaren helburua azaltzeko memoria. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.	
Lan-programaren bideragarritasuna. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.	
4.– Balorazio-irizpidea:	Finantzaketaren eskema
Gehieneko puntuazioa:	29 puntu
Balorazio-elementuak:	
Aurreikusitako aurrekontuaren tamaina: proiektuan aurreikusita dauden helburu eta jarduerekin bat etorri beharko du. Gehieneko puntuazioa: 19 puntu.	
Babesle pribatuek dirua jartzeko konpromisoa. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta beste administrazio batzuetako sailek edo enteei aurreikusita daukaten finantzaketa osagarria. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.	
Guztira	100 puntu

3.– V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.

1.– Balorazio-irizpidea:	Proposamenaren egokitasuna eta kalitatea
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
Balorazio-elementuak:	
Baloratu ahal izateko, 3.1.1.5 oinarriaren apartatuetako bati buruzkoak izan beharko dute proiektuak.	
Gehienez 20 puntu emango dira proiektua Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren jarduketa-lerroetara egokitzeagatik. Horretarako, alderatu egingo da ea proposatutako jarduketa bat datorren sailak proposamenean deskribatutako jarduketa-lerro berean egindako azterlan edo analisiekin, edo ea laguntzen programa honen esparruan aurretik laguntzak jaso dituzten proposamenekin jarraitzen duten proiektuak diren.	
2.– Balorazio-irizpidea:	Sektorean izan dezakeen inpaktua
Gehieneko puntuazioa:	6 puntu
Balorazio-elementuak:	
Proiektu hau abian jartzeak ekar ditzakeen zientzia- eta teknologia-abantailen onura jaso dezaketen populazio-sektoreak, profesionalak eta enpresak. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	
Bat etortzea herrialdeko sektoreek, kluster elkarteek edo enpresa-talde handiek identifikatutako beharrekin eta aukerekin. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	

3.– Balorazio-irizpidea:	Proiektu- edo azterlan-taldearen kalitate teknikoa eta zientifikoa.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Ikerketa-taldearen dimentsioa eta garapena, proposatutako lanean taldearen gaitasuna bermatzeko estimatutako masa kritikoari eta kideen dedikazioari dagokienez. Taldean doktoreak, master-tituludunak edota proiektuaren alorrean saritutako teknikariak izatea baloratuko da, baita erreferenziako unibertsitate edo zentro entzutetsuetan esperientzia izatea ere. Halakorik izan ezean, argitaratutako antzeko lanak egin izana baloratuko da, edota laguntzak jaso izana. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.</p> <p>Proiektuak burutzeko enpresek dituzten baliabide teknikoak, materialak eta azpiegiturakoak baloratuko dira. Eskura dituzten ekipamendua eta azpiegiturak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.</p> <p>Enpresa-elkarteak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.</p>	
4.– Balorazio-irizpidea:	Koherentzia eta zorrotasuna lanaren aurkezpenean
Gehieneko puntuazioa:	36 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Lanaren helburua azaltzeko memoria. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.</p> <p>Lan-programaren bideragarritasuna. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.</p>	
5.– Balorazio-irizpidea:	Finantzaketaren eskema
Gehieneko puntuazioa:	18 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Aurreikusitako aurrekontuaren tamaina: proiektuan aurreikusita dauden helburu eta jarduerekin bat etorri beharko du. Gehieneko puntuazioa: 12 puntu.</p> <p>Babesle pribatuek dirua jartzeko konpromisoa. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta beste administrazio batzuetako sailek edo enteek aurreikusita daukaten finantzaketa osagarria. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p>	
Guztira	100 puntu

4.– VI. lerroa: irisgarritasunaren arloko berrikuntza

1.– Balorazio-irizpidea:	Proposamenaren egokitasuna eta kalitatea
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Baloratu ahal izateko, 3.1.1.6 oinarriaren apartatuetako bati buruzkoak izan beharko dute proiektuek.</p> <p>Gehienez 20 puntu emango dira proiektua Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren jarduketa-lerroetara egokitzeagatik. Horretarako, alderatu egingo da ea proposatutako jarduketa bat datorren sailak proposamenean deskribatutako jarduketa-lerro berean egindako azterlan edo analisiekin, edo ea laguntzen programa honen esparruan aurretik laguntzak jaso dituzten proposamenekin jarraitzen duten proiektuak diren.</p>	
2.– Balorazio-irizpidea:	Sektorean izan dezakeen inpaktua
Gehieneko puntuazioa:	6 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Proiektu hau abian jartzeak ekar ditzakeen zientzia- eta teknologia-abantailen onura jaso dezaketen populazio-sektoreak, profesionalak eta enpresak. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p> <p>Bat etortzea herrialdeko sektoreek, kluster elkarteek edo enpresa-talde handiek identifikatutako beharrek eta aukerekin. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.</p>	
3.– Balorazio-irizpidea:	Proiektu- edo azterlan-taldearen kalitate teknikoa eta zientifikoa.
Gehieneko puntuazioa:	20 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Ikerketa-taldearen dimentsioa eta garapena, proposatutako lanean taldearen gaitasuna bermatzeko estimatutako masa kritikoa eta kideen dedikazioari dagokienez. Taldean doktoreak, master-tituludunak edota proiektuaren alorrean saritutako teknikariak izatea baloratuko da, baita erreferentziako unibertsitate edo zentro entzutetsuetan esperientzia izatea ere. Halakorik izan ezean, argitaratutako antzeko lanak egin izana baloratuko da, edota laguntzak jaso izana. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.</p> <p>Proiektuak burutzeko enpresek dituzten baliabide teknikoak, materialak eta azpiegiturakoak baloratuko dira. Eskura dituzten ekipamendua eta azpiegiturak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.</p> <p>Enpresa-elkarteak baloratuko dira. Gehieneko puntuazioa: 5 puntu.</p>	
4.– Balorazio-irizpidea:	Koherentzia eta zorroztasuna lanaren aurkezpenean
Gehieneko puntuazioa:	36 puntu
<p>Balorazio-elementuak:</p> <p>Lanaren helburua azaltzeko memoria. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.</p> <p>Lan-programaren bideragarritasuna. Gehieneko puntuazioa: 18 puntu.</p>	

5.– Balorazio-irizpidea:	Finantzaketaren eskema
Gehieneko puntuazioa:	18 puntu
Balorazio-elementuak:	
Aurreikusitako aurrekontuaren tamaina: proiektuan aurreikusita dauden helburu eta jarduerekin bat etorri beharko du. Gehieneko puntuazioa: 12 puntu.	
Babesle pribatuek dirua jartzeko konpromisoa. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta beste administrazio batzuetako sailek edo enteek aurreikusita daukaten finantzaketa osagarria. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.	
Guztira	100 puntu

14. oinarria.– Aurreikusitako kreditua.

1.– Oinarri hauetako hirugarrenean zehaztutako ekintzetarako aurrekontu-zuzkidura osoa bi milioi eta berrehun mila (2.200.000,00) eurokoa izango da, honela banatuta:

Urtea	Zenbatekoa (eurotan)
2026	200.000,00
2027	1.000.000,00
2028	1.000.000,00

Aurrekontu-partida honetan dago zuzkidura: 2026 1000921000 1.43122.75101; partida: PEP 2026/000473.

2.– Esandako zenbatekoa honela banatuko da dirulaguntza-lerro bakoitzerako:

a) I. lerroko –«Oinarrietan aurreikusitako zenbait gairi buruzko berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak», berrehun eta berrogeita hamar mila (250.000,00) euro bideratuko dira gehienez.

b) II. lerroko –«Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea», ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro bideratuko dira gehienez.

c) III. lerroko –«Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea», ehun mila (100.000,00) euro bideratuko dira gehienez.

d) IV. lerroko –«Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea», hogeita hamar mila (20.000,00) euro bideratuko dira gehienez.

e) V. lerroko –«Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak», milioi bat eta berrehun mila (1.200.000,00) euro bideratuko dira.

f) VI. lerroko –«Irisgarritasunaren arloko berrikuntza», laurogei eta laurogei mila (480.000,00) euro bideratuko dira.

3.– Eskabide nahikorik ez dagoelako edo betekizunak betetzen ez direlako aipatutako jarduketa-lerroetako bati esleitutako diru-zenbatekoa agortzen ez bada, beste jarduketa-lerro bati esleitutako diru-zenbatekoari gehitu ahalko zaio sobera dagoen zenbatekoa. Lehen tasun-ordena honi jarraituz banatuko da soberakina: lehenik, V. lerroa; bigarrenik, VI. lerroa; hirugarrenik, I. lerroa; gero, II. lerroa; ondoren, IV. lerroa, eta, azkenik, III. lerroa. Zuzkidura berresleitzeko, Aginduaren 17. oinarrian aurreikusitako organoak egiten duen proposamenari jarraituko zaio. Etxebizitzako sailburuordeak dirulaguntzak emateko eginiko ebazpenean islatuko da inguruabar hori.

4.– Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako –Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren konturako gastu-espedienteen alde aurreko izapidea arautzen du agindu horrek–, agindu honetako laguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026. urteko aurrekontu orokorretan.

15. oinarria.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

Agindu honen esparruan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa laguntza-lerro bakoitzerako ezarritako irizpide eta mugen arabera zehaztuko da, jarraian zehazten den moduan.

Emango den dirulaguntzak inola ere ez ditu gaindituko bi zenbateko hauek:

a) Laguntza-lerro bakoitzerako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa, agindu honetan ezarritakoaren arabera.

b) Eskatutako zenbatekoa.

Jarraian, dirulaguntza-lerroaren arabera aplikatzekoak diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak zehazten dira:

1.– I. lerroa eta II. lerroa: Berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak, eta Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea, oinarrietan aurreikusitako zenbait gairi buruz.

a) Aurkeztutako eskabideak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira, balorazio-fasean lortutako puntuazioaren arabera.

b) Ordenatu ondoren, formula hau aplikatuko da eskabide bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko:

(eskatutako puntuazioa/100) x zenbateko hauetako txikiena:

1) Aurkeztutako eta onartutako aurrekontua (zergak kontuan hartu gabe).

2) Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, lerroko proiektu edo azterlan bakoitzeko.

c) Hau izango da proiektu edo azterlan bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa:

I. lerroan: 75.000,00 euro.

II. lerroan: 30.000,00 euro.

2.– III. lerroa: Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.

a) Kudeaketa-sistemak ezarri eta ziurtatzetik eratorritako kanpoko gastuen % 50ekoa izango da dirulaguntza (zergak kanpo), eta inola ere ez dira gaindituko hurrengo apartatuan aurreikusitako

gehienerako zenbatekoak. Hala ere, laneko arriskuen prebentzio-sistemaren ziurtapenaren kasuan, Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauaren arabera, gastu horien % 25ekoa izango da dirulaguntza, betiere Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak onartu baditu proiektuak.

b) Hauek izango dira laguntzaren gehieneko zenbatekoak ziurtapen bakoitzeko:

1) UNE-EN ISO 19650 arauak araututako sistema ziurtatzeko: 5.000,00 euro.

2) Sistema bakar bat ziurtatzeko: 5.000,00 euro, salbu eta Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauarena denean, horrelakoetan 2.500,00 eurokoa izango baita.

3) Bi sistema ziurtatzeko: 8.000,00 euro, salbu eta ziurtagirietako bat Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauarena denean, horrelakoetan 5.500,00 eurokoa izango baita.

4) Hiru sistema ziurtatzeko: 11.000,00 euro, salbu eta ziurtagirietako bat Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ISO 45001 arauarena denean, horrelakoetan 8.500,00 eurokoa izango baita.

5) Eraikuntzaren sektoreko profesionalentzat dauden energia-efizientziari eta jasangarritasunari lotutako ziurtagiriak egiaztatzeke: 2.000,00 euro.

c) III. lerroko dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko, eta agindu honetan eskatutako baldintza subjektibo eta objektiboak betetzen direla egiaztatu ondoren, prozedura honi jarraituko zaio:

1) Agindu honen esparruan lehentasunezkoetat jotzen diren jarduketei buruzko eskabide bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da hasieran (UNE-EN ISO 19650-1:2019), artikulua honetan ezarritako ehunekoak eta muga kuantitatiboak aplikatuta.

2) Lerro honi esleitutako zuzkidura ekonomikoa nahikoa bada lehentasunezko jarduketetarako hasieran kalkulatu zenbateko guztiak estaltzeko, ondoriozko zenbateko oso horiekin esleituko dira dirulaguntzak.

Horrela ez bada, lehentasunezko jarduketei buruzko eskabide guztiek (UNE-EN ISO 19650-1:2019) jasoko dute dirulaguntza, murrizketa proportzionala (lineala) aplikatuz hasieran kalkulatu zenbatekoari, kreditu erabilgarriaren adinakoa izan dadin guztien baterako banaketa. Talde honetako eskabide bat ere ez da baztertuko aurrekontua nahikoa ez delako, betiere eskatutako baldintzak betetzen baditu.

3) Lehentasunezko jarduketan multzoari dagozkion dirulaguntzak esleitu ondoren oraindik aurrekontu-soberakin geratzen bada, adjudikazio-prozesuarekin jarraituko da jarduketa-taldeen lehentasun-ordenan beherantz jarraituz, eta irizpide berberak aplikatuko dira erabilgarri dagoen zuzkidura ekonomikoa agortu arte.

3.– IV. lerroa: Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.

a) Kanpoko gastuen % 50 izango da dirulaguntza (zergak kanpo). Eraikin bakoitzeko dirulaguntza 6.000,00 eurokoa izango da, gehienez ere.

b) Dirulaguntza-lerro honi dagozkion dirulaguntzak esleitzeko zenbatekoa zehazteko, prozedura honi jarraituko zaio:

1) Eskabideek agindu honetan ezarritako baldintza subjektibo eta objektiboak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, eskabide bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da hasieran, ehunekoak aplikatuz eta a) apartatuan adierazitako gehieneko muga errespetatuz, inola ere gainditu gabe eskatutako zenbatekoa.

2) Lerro honi esleitutako zuzkidura ekonomikoa nahikoa bada hasieran kalkulaturako zenbateko guztiak estaltzeko, zenbateko oso horiekin esleituko dira dirulaguntzak. Horrela ez bada, murrizketa proportzionala (lineala) aplikatuko zaie kalkulaturako zenbateko guztiei, zuzkidura erabilgarria guztiak estaltzeko adinakoa izan arte.

4.– V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.

a) Puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira jarduketak, eskuratutako puntuen arabera.

b) Ordenatu ondoren, formula hau aplikatuta emango dira dirulaguntzak: eskuratutako puntuazioa/100 x zenbateko bi hauetako txikiena:

1) Aurkeztutako eta onartutako aurrekontua (zergak kanpo).

2) Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, lerro honetako proiektu edo azterlan bakoitzeko.

c) V. lerroko proiektu edo azterlan bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 150.000,00 euro izango da.

5.– VI. lerroa: Irisgarritasunaren arloko berrikuntza.

a) Puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira jarduketak, eskuratutako puntuen arabera.

b) Ordenatu ondoren, formula hau aplikatuta emango dira dirulaguntzak: eskuratutako puntuazioa/100 x zenbateko bi hauetako txikiena:

1) Aurkeztutako eta onartutako aurrekontua (zergak kanpo).

2) Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, lerro honetako proiektu edo azterlan bakoitzeko.

c) VI. lerroko proiektu edo azterlan bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 75.000,00 euro izango da.

16. oinarria.– Balorazio-epaimahaia.

1.– Eskabideak baloratzeko, balorazio-epaimahai bat eratuko da, eta hauek izango dira kideak: Eraikuntzaren Arkitektura, Araudi eta Kalitate Kontroleko Zerbitzuko burua eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko bi teknikari, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariak izendatuta.

2.– Balorazio-epaimahaiko kideen berri emango zaie laguntzak eskatzen dituztenei, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan arautzen den errekusazio-araubidearen ondorioetarako.

3.– Epaimahai horrek, 13. oinarrian ezarritako irizpideak aplikatuta, dirulaguntza-lerro bakoitzean aurkeztutako eskabideak ebaluatuko ditu; halaber, 12. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, ebaluazioaren emaitza jasoko duen txosten bat egingo du, eta laguntza-programa kudeatzen duen organoari bidaliko dio.

4.– Balorazio-epaimahaiak, dagozkion eginkizunak betetzearren, bileretan parte hartzeko eta aholkularitza emateko eskatu ahal izango die beharrezko irizten dien gaietako adituei.

5.– Balorazio-epaimahaiak ordezkapen orekatua izan beharko du, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.10 artikulua aplikatuz.

17. oinarria.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publikotasun-prozedura.

1.– Eskabide bakoitza dagokion laguntza-lerroaren arau espezifikoaren arabera izapidetuko da, eta agindu honetan lerro horretarako araututako kudeaketa-prozedura, ebazteko irizpideak, epeak eta gainerako alderdiak aplikatuko dira kasu bakoitzean.

2.– Dirulaguntza-lerroetako bakoitza ebaztea, interesdunek azaldutako gai guztiak erabakita, Etxebizitzako sailburuordeari dagokio, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariak proposatu ostean.

Ebazpen-proposamenean, ematea proposatzen diren dirulaguntzen zerrenda jasoko da, datu hauek adierazita: onuraduna, diruz lagundutako jarduketak, lortutako puntuazioak, hala badagokio, eta proposatutako zenbatekoak. Era berean, ukatzea proposatzen diren eskabideen zerrenda jasoko da, eskatzaileak eta ukatzeko arrazoiak adierazita.

3.– Prozedura bakoitzean hartuko den ebazpenean erabakiko da eskatutako dirulaguntzak ematen edo ukatzen diren. Emanez gero, datu hauek adieraziko dira: pertsona edo entitate onuradunen izena edo sozietate-izena, finantzatutako jarduketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta, hala badagokio, urtekako banaketa. Nortasun juridikorik gabeko taldeak badira, zehatz adierazi beharko da zer gauzatze-konpromiso hartu duen taldekide bakoitzak, bai eta bakoitzari dirulaguntzaren zein zati dagokion ere.

Ebazpenak, dirulaguntza nori emango zaion edo zeintzuek jasoko duten azaltzeaz gainera, espresuki adierazi beharko du, hala badagokio, zertarako den dirulaguntza, zer kopuru ematen den, nola eta zer epetan ordainduko den, nola justifikatu behar den, zer xedapenen babesean eman den eta dirulaguntzaren oinarri erregulatzailerik eskatzen dituzten gainontzeko baldintza eta betekizunak, bai eta gainerako eskaerak ezetsi egin direla ere. Ebazpenean, aipatu gabe utzi ahal izango dira deialdiaren oinarrietan dagoeneko ezarrita dauden eta berriz aipatzea errepikatzea litzatekeen baldintza eta betekizunak eta, haien ordez, egoitza elektronikorako estekak jar daitezke, deialdia eta oinarriak haietan kontsultatzeko.

Laguntza ukatuz gero, datu hauek adieraziko dira ebazpenean: eskatzaileen izena edo sozietate-izena, ukatu izanaren oinarri diren arrazoiak eta norgehiagoka-prozeduraren bidez aurkeztutako proiektuek eskuratutako puntuazioa.

4.– Aurreko apartatuan aipatutako ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari. Horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

5.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie prozedura bakoitzean interesdun direnei. Hala ere, jendeak ebazpenaren berri izan dezan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da.

6.– Ebazpena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera. Epe hori amaitu eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, haien eskabidea ezetsi egin dela ondorioztatu ahal izango dute eskatzaileek, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

18. oinarria.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Entitate onuradunek 2028ko ekainaren 30a baino lehen justifikatu beharko dute diruz lagundutako ekintza, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluekin bat etorritik.

2.– Horretarako, eta betiere, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, dirulaguntza eskatzeko erabili zituzten bide berberak erabiliz:

a) Deskripzio-memoria bat, dagokion jarduketa-lerroan diruz lagundutako ekintzak egin direla dioena. Eredu normalizatu bat dago eskuragarri, deialdi honen apartatu espezifikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (www.euskadi.eus).

Memoria horretan, egindako jarduketaren ezaugarri garrantzitsuenak deskribatu beharko dira, baita aurreikusitako helburuen betetze-maila ere.

b) III. eta IV. lerroei dagozkien jarduketan kasuan, entitate ziurtatzaile batek edo markak egiaztatutako organismoek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

c) Diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo ordainagiriak. Diruz laguntzeko moduko gastuak justifikatzeko, baliozko sinadura digitala duten faktura elektronikoak edo indarrean dagoen araudiaren arabera froga-balio baliokidea duten beste dokumentu batzuk aurkeztu beharko dira. Justifikazio-ondorioetarako, ez da onartuko onuradunak eskaneatutako fakturarik, baldin eta ez badu benetakotasun-ziurtagiririk. Prozedura telematikoki izapidetzeak ez du salbuesten dokumentuen kontrol- eta egiazkotasun-printzipioak betetzetik.

d) Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda zehatza; hala badagokio, helburu berbererako beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk jaso direla zehaztuko da.

e) Berriazko memoria bat, diruz lagundutako ekimenarekin lotuta garatu diren komunikazio- eta publizitate-ekintzei buruz.

f) Proiektuaren esparruan sortutako materialen kopia.

g) IV. lerroan egindako jarduketak justifikatzeko, obra-bukaerako ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsita.

19. oinarria.– Dirulaguntza ordaintzea. Agindu honen babesean emango diren dirulaguntzak araubide honi jarraikiz ordainduko dira:

1.– Oinarri hauetako 20.1.a) apartatuan ezarritako epea igarota, entitate onuradunak berriaz uko egiten ez badio, lehenengo ordainketa aurreratu bat egingo da. Gehienez ere, emandako zenbatekoaren % 9koa izango da ordainketa hori, eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak abian jartzeko erabiliko da. Ordainketa aurreratu hori jarduketa hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren egingo da.

2.– Ondoren, diruz lagundutako jarduera benetan gauzatu dela eta gastua egin dela egiaztatzen duten justifikazio-txostenak kontuan hartuta egingo dira ordainketak. Horrela, proiektua benetan gauzatzeko erritmoa egokituko dira igorpenen sekuentzia eta zenbatekoa, betiere emandako dirulaguntzaren urterokoak errespetatuz.

3.– Emandako zenbateko osoaren % 10 atxikiko da gutxienez, eta dirulaguntzaren xede den jarduketa osorik justifikatu eta erabat bukatu dela egiaztatu ondoren baino ez da ordainduko.

4.– Ez da inolako ordainketarik egingo onuradunak ez baditu egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo zorduna bada dirulaguntza organo emaileari berreskuratzeko prozedura-ebazpen baten ondorioz.

5.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, entitate onuraduna Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko da. Bertan alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>.

20. oinarria.– Entitate onuradunaren betebeharrak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate onuradunek betebeharrak bete beharko dituzte beti, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan ezarritakoez gain:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean entitate onuradunek ez badiote laguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, isilbidez onartu dela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman zen xede horretarako erabiltzea.

c) Diruz lagundutako ekintza gauzatzea eta justifikatzea, agindu honen 6. eta 18. oinarrietan ezarritako epeetan.

d) Hala dagokionean, proiektuak gauzatzea behar bezala gauzatzeko egoki diren lizentziak, baimenak eta gainerako sektore-betekizunak betez.

e) Dirulaguntza eman duen organoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin ditzaketen egiaztapen-ekintzak onartzea, baita Espainiako zein Europar Batasuneko kontrol-organo eskudunek finantza-arloa egiaztatze eta kontrolatzeko egin dezaketen jarduketa oro ere. Horretarako, jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaien informazio guztia eman behar dute onuradunek.

f) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduera finantzatzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratu izana. Jakin bezain laster jakinarazi behar zaio, eta betiere jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

g) Behar bezalako publizitatea ematea jasotako dirulaguntzari, 20/2023 Legearen 27 artikuluan xedaturikoaren arabera. Gutxienez, entitate onuradunaren web-orrian eman beharko da jasotako laguntzaren berri, eta laguntza emateko ebazpenean ezar litezkeen bestelako bitarteko batzuetan ere eman ahal izango da, jarduketaren izaeraren eta ezaugarrien arabera.

h) Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari doan eta era ez-esklusiboan lagatzea laguntzaren esparruan egiten den informazio teknikoa eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, sailaren informazio-sistemetan erabili eta txerta ditzan, eta haren zabalkundea edo argitalpena egin dezan edozein baliabide edo formatu bibliografikotan, ikus-entzunezkotan, informatikotan edota teknikaren erabilerak ahalbidetzen duenetan. Edonola ere, jabetza intelektualaren eskubideak errespetatuko dira.

2.– Entitate onuradunak diruz laguntzeko moduko jarduera zuzenean gauzatzeko egin behar dituen gastu diruz lagungarriek Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte, 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obra egitea, zerbitzua ematea edo ondasuna entregatzea kontratatu aurretik.

Betekizun hori proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko kontratuei (zerbitzu-kontratuak) zein obrak gauzatzeko kontratuei aplikatuko zaie. Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeraketa egiteko (dirulaguntzaren justifikazioarekin edo, hala badagokio, eskabidearekin batera aurkeztuko dira eskaintzak), efizientzia eta ekonomia irizpideak erabiliko dira, eta txosten baten bidez espresuki justifikatu beharko da ekonomikoki onena den proposamena aukeratzen ez denean.

3.– Entitate onuradunek Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak antolatutako sentsibilizazio- eta trebakuntza-jardueretan parte hartu ahal izango dute, baita esperientziak trukatzekoetan ere, betiere Eraikal ekimenean bildutako jardueren barruan.

21. oinarria.– Emandako laguntzaren zenbatekoa aldatzea.

Jarduketaren behin betiko benetako kostua laguntza emateko oinarritzat hartutako aurrekontua baino txikiagoa bada, dagokion proportzioan murriztuko da emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Laguntza emateko oinarria onartutako aurrekontuaren gainean aplikatutako ehuneko bat denean, ateratzen den oinarri berriari aplikatuko zaio ehuneko hori.

Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4 k) artikulua araber, aldi berean laguntzak edo dirulaguntzak lortu badira beste administrazio publiko batzuetatik edo ente publiko zein pribatu batzuetatik, edo bestelako diru-sarrerak edo baliabideak lortu badira helburu bererako, aldatu egingo da emandako laguntzaren zenbatekoa.

22. oinarria.– Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea.

1.– Emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabaki dezake dirulaguntza ematen duen organoak, ofizioz edo interesdunak eskatuta, betekizun hauek betetzen direnean:

a) Dirulaguntzen oinarri erregulatzailaetan aurreikusita egotea aldatzeko aukera.

b) Dirulaguntza aldatzea interesdunak eskatuz gero, 14.e artikuluan adierazitako betebeharra betez jakinaraztea onuradunak, jakin bezain laster eta, nolana ere, jasotako funtsen aplikazioa justifikatu baino lehen.

c) Zenbatekoa gehitu behar ez izatea.

d) Oinarri erregulatzailaen xedeen artean egotea gauzatu den edo gauzatzekoa den jarduera edo jokabidea.

e) Onuradunaren borondateak zerikusirik ez izatea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrekin.

f) Aldaketa dakarten elementu eta inguruabar berriak, hasierako dirulaguntza emateko unean gertatu izanez gero, dirulaguntza ez emateko arrazoi ez izatea, eta aldaketak ez eragitea hasieran onetsitako proiektua nabarmen aldatzea.

g) Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

2.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat aldatuz gero, baldin eta deialdiaren xedea betetzat jotzen bada, edo aldi berean beste entitate publiko zein pribaturen baten beste laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaio Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzari, berariaz onar dezan.

Aipatutako aldaketek dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango dute, betiere agindu honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko betekizunak betetzen badira.

Horretarako, dagokion kitapen-ebazpena emango da; hor, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak doituko dira edo, hala badagokio, behar den zenbatekoaz gaindi jasotakoa itzultzeko eskatu.

3.– Aldaketak ezingo du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren funtsezko izaera aldatu. Aldaketa onartzeko, entitate onuradunak txosten xehatu baten bidez justifikatu beharko du aldatutako proiektuaren inpaktua hasieran diruz lagundutako proiektuarena bezalakoa edo handiagoa dela.

4.– Dirulaguntzaren onuradunak justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatu egin direla eta litekeena dela aldaketa horrek ebazpena bera ere aldaraztea, eta aldaketok onartzeko aurrez behar den administrazio-baimenaren izapidea ez bada egin, dirulaguntza eman duen organoaren aukeran geratuko da justifikazio hori ontzat ematea, betiere beste inoren eskubideak kaltetzen ez badira horrela. Dirulaguntza eman duen organoak egiaztapen-egintzan aldaketak onartzeak ez dakar berekin onuraduna dagozkion zehapenetatik salbuetsita geratzea.

5.– Salbuespen gisa, eta entitate onuradunaren borondatearekin zerikusirik ez duten eta behar bezala justifikatu diren arrazoiak daudenean, diruz lagundutako jarduketa egiteko eta amaitzeko hasieran aurreikusitako epea luzatzeko eskatu ahal izango du entitate onuradunak. Ezarritako gauzate-epea amaitu baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztu beharko da eskabide hori. Emango den luzapena ezin izango da izan onuradunak behar bezala justifikatutako atzerapen-denbora baino luzeagoa, ezta justifikaziorako epemuga baino geroagokoa ere.

Epea luzatzeko eskaera hori Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariak onartu beharko du, ebazpen bidez. Ebazpen horretan, era berean, azken likidazioa egiteko eskatutako dokumentu guztiak aurkezteko azken epe berria finkatuko da.

23. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Eskatzaileak edozein unetan egin ahal izango du atzera eskabidean, laguntza emateko prozedura ebazten duen ebazpena jakinarazi aurretik. Atzera egitea agindu honetan araututako laguntzak kudeatzen dituen organo eskudunari aurkeztu beharko zaio, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du atzera egite hori, eta amaitutzat emango du eskabide horri dagokion prozedura.

2.– Onuradunak, gainera, uko egin ahal izango dio eman zaion laguntzari, eta hala egin ahal izango du dirulaguntza onartu ondoren ere. Uko hori laguntzak kudeatzen dituen organoari aurkeztu beharko zaio, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du ukoa, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

3.– Ukoa onartu ondoren, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

4.– Ez da onartuko aurkeztutako ukoa, baldin eta entitate interesdunari jakinarazi bazaio ez-betetzea deklaratzeko edo zehatzeko prozedura hasi dela deialdiaren esparruan, eta prozedura horrek aurrera jarraituko du ebatzi arte.

24. oinarria.– Ez-betetzearen ondorioak.

1.– Baldin eta entitate onuradunak dirulaguntza eskatzeko eta emateko azaldu zen helburu espezifikorako erabiltzen ez badu Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak emandako dirulaguntza, ez badu egiten dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketa, ez badu aurkeztzen eskatutako justifikazioa edo justifikazio hori nahikoa ez bada, edo, oro har, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritako dirua organo emaileari berreskuratzekeko arrazoiren

bat gertatzen bada, entitateak organo emaileari berreskuratu beharko dio dirulaguntza, oso-osorik edo zati bat, araudi horretan aurreikusitakoaren arabera eta hautemandako ez-betetzearen mailaren arabera.

2.– Era berean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.2 artikuluan jasotako kasuan, organo emaileari berreskuratu beharko zaio diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina, bai eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesak ere.

3.– Onuradunaren betetze-maila ezarritako baldintzen erabateko betetze-mailara nabarmen hurbiltzen denean eta egiaztatzen duenean bere jarduna konpromisoak betetzera bideratuta dagoela zalantzarik gabe, proportzionaltasun-irizpideak aplikatuz zehaztuko da zenbat berreskuratu behar zaion organo emaileari, ez-betetzearen maila eta irismena kontuan hartuta. Ondorioz, laguntzaren zati bat berreskuratu ahal izango zaio organo emaileari, baldin eta diruz lagundutako jarduketaren zati handi bat gauzatu bada eta behar bezala justifikatu bada, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.– Horretarako, eta 20/2023 Legearen 9.4.m) artikuluan aurreikusitakoa betez, inguruabar hauek erabili ahal izango dira oinarri gisa ez-betetzeetan mailakatzeko irizpideak aplikatzeko:

a) Aurreikusitakoaren aldean benetan lortu den gauzatze tekniko eta ekonomikoaren ehunekoa.

b) Aurkeztu den justifikazioaren kalitatea eta koherentzia.

c) Ez-betetzea puntuala, isolatua edo errepikatua den.

d) Guztiz gauzatzea eragotzi duten gerora sortutako eta behar bezala egiaztatutako arrazoiak egotea.

e) Ez-betetzeak diruz lagundutako programaren funtsezko helburuetan duen inpaktua.

5.– Nolanahi ere, mailakatzeko irizpideak aplikatzeko arrazoiak azaldu beharko dira, eta proportzionaltasun-printzipioari erantzun beharko zaio. Hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.m) artikulua arabera aplikatuko da.

25. oinarria.– Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira funts publikoen edo pribatuen kargura helburu berbererako jaso daitezkeen beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Hala ere, helburu bererako jasotako laguntzen zenbateko osoak, deialdi honen bidez emandakoa ere kontuan hartuta, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditzen badu, murriztu egingo da laguntzaren zenbatekoa, kostu horretara egokitu arte, edo, hala badagokio, soberakina itzultzeko eskatuko da, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, pertsona edo entitate onuradunek, laguntza-eskabidearekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non berariaz hitzematzen baitute diruz lagundutako jardueraren kostu osoa ez dela gainditzen jaso daitezkeen laguntza guztiekin, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.h) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

II. ERANSKINA

LAGUNTZA ESKATZEKO INPRIMAKIA

Eredua, aurrez aurre eskatzeko Eraikal 2026 programako dirulaguntza –Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-erakuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzea bultzatzeko, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntza babesteko–.

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariari:

.....(e)n,.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n.

..... [izen-abizenak]
jaunak/andreak..... [kargua] den
aldetik..... [entitate eskatzailea] ordezkatzuz –helbidea:
..... [entitate eskatzailearen helbidea]–, eta
harremanetarako telefono-zenbakia..... duela, honen bidez, laguntza eskatzen du Eraikal
2026 programarako, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-erakuntzaren sektorean
kudeaketa-sistemak ezartzea bultzatzeko, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna
sustatzeko eta berrikuntza babesteko.

Eraikal 2026 programa horri dagokion deialdia Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren
2025eko azaroaren 12ko Aginduan dago araututa.

Eskaera hau laguntza-lerro honi dagokio:

- I. lerroa: Alderdi hauei dagozkien berrikuntza arloko proiektu edo azterlanak:
 - a) Bizitegi-erakuntzaren kalitatea, funtzionalitateari, arkitekturari eta eraikuntzari dagokienez.
 - b) Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak eta eraikinen informazioaren modelaketa.
 - c) Bizitegi-erabilera duten eraikinetako obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak.
 - d) Bizitegi-erabilera duten eraikinen instalazioei buruzko azterlanak.
 - e) Etxebizitza berrien eta lehendik daudenen bizigarritasunari buruzko azterlanak.
- II. lerroa: Informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak egitea, aurreko apartatuan aurreikusitako gaiekin lotuta.
- III. lerroa: Bizitegi-erakuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.
- IV. lerroa: Bizitegi-eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.

- V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlanak, proiektuak eta prototipo espezifikoak.
- VI. lerroa: Irisgarritasunaren arloko berrikuntza.

Aipatutako deialdian parte hartzeko, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2025eko azaroaren 12ko Aginduaren 9. oinarrian adierazitako dokumentazioa erantsi zaio laguntza-eskabide honi, hau da:

a) Erantzukizunpeko adierazpena.

b) Proiektuaren memoria.

c) 2028. urtera arteko aurrekontua, urteka banakatuta, bai eta ataza edo jardueren arabera ere, ataza bakoitzaren barne-gastuak (proiektua zuzentzen duen eragilearen beraren gastuak) eta kanpoko edo azpikontratutako eragileen gastuak (kanpo entitateak azpikontratatzegatikoko gastuak) bereizita.

d) Diruz lagundutako jardueraren eredugarritasuna hedatzeko, jakinarazteko eta indartzeko ekintza-plana.

Eskatzaileak baimena ematen/ukatzen du automatikoki egiazta dadin egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eskatzaileak baimen hori ukatzen badu, ziurtagiria erantsi beharko dio laguntza-eskabideari, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.3 artikuluan jasotakoaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da agindu hori–.

Zure erantzunaren zain, jaso ezazu agur bero bat, (Izena eta sinadura).

Oharrak:

1.– Deialdi honetarako eskabidea pertsona fisiko zein juridikoen talde batek egin badu, nortasun juridikorik gabeko pribatua edo publikoa izan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluari jarraikiz, eskabidean zehatz adierazi beharko da zer gauzatze-konpromiso hartu duen taldekide bakoitzak, bai eta bakoitzari dirulaguntzaren zein zati dagoen ere, guztiak hartuko baitira onuraduntzat.

Haiek guztiek sinatu beharko dute eskabidea, non eta ez duten ordezkaria izendatzen; hala eginez gero, behar beste ahal izan beharko ditu ordezkariak bere gain hartu ahal izateko taldeari (onuradun gisa) dagozkion obligazioak. Ordezkariak eskabidea sinatu beharko du, eta horren izendapena aurkeztu.

Elkartea ezin izango da desegin harik eta preskripzio-epaia igaro arte, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 39. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteko organoa:

– Eusko Jaurlaritza.

– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren erregistro orokorra. Donostia kalea 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza.

Samaniego kalea 2, 1. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz.

– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

Andia kalea 13. 20004 Donostia.

– Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza.

Kale Nagusia 85. 48011 Bilbao.

3.– Datuen babesari buruzko informazioa:

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua betez, jakinarazten da zure datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honetan sartuko direla: Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak.

Tratamenduaren arduraduna:

– Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba. Telefonoa: 945 01 80 00.

Web-orria: <http://euskadi.eus>

Datuak babesteko ordezkaria:

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba. Telefonoa: 945 01 86 80.

Web-orria: www.euskadi.eus/datu-babesa

Helburua:

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea, Renove programa, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze efizientea, udalenzako, toki-entitate txikienezako eta xede soziala duten onura publikoko entitate pribatuentzako irisgarritasunaren arloko laguntzak, Eraikal programa, zuzeneko dirulaguntzak.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko.

– Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21koa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– Datuak gordeta edukitzeko epea.

– Jaso zireneko helburua betetzeko eta egon daitezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denbora. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Hartzaileak:

– Europar Batasuneko organoak.

Datuak babestearen arloko eskubideak:

1.– Irispidea izateko eskubidea:

Interesdunak duen eskubidea, tratamenduaren arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez, eta, hala bada, datu horietara irispidea izateko eskubidea.

2.– Zuzentzeko eskubidea:

Interesdunak duen eskubidea, berari dagozkion datu pertsonal okerrak zuzentzeko, eta osatugabeak diren datu pertsonalak osatzeko, adierazpen gehigarri baten bidez ere.

3.– Ezerezteko eskubidea:

Ahaztua izateko eskubidea: Interesdunak duen eskubidea, berari dagozkion datu pertsonalak ezereztea lortzeko, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Datu pertsonalak jada beharrezkoak ez badira bildu edo tratatu ziren xedeetarako.

b) Interesdunak tratamenduaren oinarri den baimena kentzen badu, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik.

c) Interesdunak tratamenduari aurka egiten badio, eta datuak tratatzeko legezko beste arrazoirik ez badago horren gainerik.

d) Datu pertsonalak legez kontra tratatu badira.

e) Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-eginbehar bat betetzeko.

f) Tratamendua legez kontrakoa bada eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egiten badu eta, horren orde, haien erabilera mugatzeko eskatu.

g) Tratamenduaren arduradunak jadanik ez baditu datu pertsonalak behar tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai behar baditu erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

h) Interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, tratamenduaren arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunaren arrazoi gainerik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

4.– Aurka egiteko eskubidea:

1.– Interesdunak duen eskubidea, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, tratamenduaren arduradunari galarazteko berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egitea, tratamendua beharrezkoa bada ere interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko edo ahal publikoak erabili edo hirugarrenen interes legitimoa babesteko, baita profilak egitea ere.

2.– Tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen tratamenduari eusteko ezinbesteko arrazoiak daudela interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik, edo datuok beharrezkoak direla erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

3.– Datuen tratamenduaren helburua ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa bada, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

4.– Tratamendu automatizatua: Interesdunak eskubidea izango du tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta harengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten xede ez izateko, profilak egitea barne.

Eskubideak baliatzea:

– Eskubide horiek tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatzeko eskubidea daukazu, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/

– Halaber, eskubidea duzu erreklamazioak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkezteko, eta aukera duzu, baita ere, aurretik erreklamazioa jartzeko datuak babesteko ordezkariari:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/10843/

Datu pertsonalen babesari buruzko informazio xehatua:

– EAEko datuak babesteko ordezkariaren web-orria: (www.euskadi.eus/datu-babesa).

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: (eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

(https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

III. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

.....(e)ko.....aren.....(a)

..... [izen-abizenak]
 jaunak/andreak..... [kargua] den
 aldetik..... [entitate eskatzailea] ordezkatzuz –helbidea:
 [entitate eskatzailearen helbidea]–, zeinak
 laguntza-eskabidea egin baitu Eraikal 2026 programako laguntzen deialdirako, agiri honen bidez hau
 adierazten du:

a) Pertsona edo entitate eskatzaileak arau hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ditu Eraikal 2026 programako laguntzen onuradun izateko: agindu honetan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan. Horrez gain, hala ziurtatzen duen dokumentazioa dauka, eta Administrazioaren eskura jarriko du hala eskatzen zaionean.

b) (Hautatu aukera egokia):

- Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du eskatu, ezta lortu ere, helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo ente publiko edo pribaturen batetik.
- Pertsona edo entitate eskatzaileak bai eskatu edo lortu du helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo ente publiko edo pribaturen batetik.

Zehazki,(r)en [laguntza eskatu zaion organismoaren izena] laguntza eskatu/lortu du, proiektua honako honek araututako baldintzen arabera garatzeko: [laguntza osagarriaren eskaeraren deialdia arautzen duen araudiaren erreferentzia]. Proiektuaren barruan, baldintza hauen arabera egin da eskaera/eman da laguntza:

- Dirulaguntzak estaltzen dituen kontzeptuak:
- Eskatutako zenbatekoa:
- Emandako zenbatekoa:
- BEZaren zenbatekoa bai da/ez da diruz laguntzekoa.

Dokumentu honen datan, dirulaguntza hori oraindik ez da ebatzi, edo baldintza hauetan ebatzi da: ebazpenean ezarri dira (laguntzak ebazten dituen dokumentuaren erreferentzia).

c) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du galdu, epai irmo bidez, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera, eta ez dute kondenatu delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

d) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat deklaratu izan prozedura batean ere, ez eta konkurtsoan deklaratu ere –salbu eta bertan hitzarmen bat eraginkor bihurtu bada–, eta ez dago inongo esku-hartze judizialen pean edota desgaituta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, artean konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe izanik.

e) Pertsona edo entitate eskatzailea ez da errudun deklaratu izan administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazte irmoa eragiteagatik.

f) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo ez dira Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

g) Pertsona edo entitate eskatzaileak egunean ditu indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehazten den moduan.

h) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez dauka egoitza fiskala indarrean dagoen araudiaren arabera zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean.

i) Pertsona edo entitate eskatzaileak egunean ditu dirulaguntzak organo emaileari berreskuratzeko ordainketa-betebeharrak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorriz.

j) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du jaso, ebazpen irmo bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapenik, lege honetan edo besteren batean oinarrituta.

k) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du zehapenik jaso, ez administratiboki ez penalki, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldiak.

l) Entitate eskatzaileak indarrean dauka Estatuko araudiaren arabeko berdintasun-plan bat; halaber, 50 langile baino gehiago baditu, egiaztatu du neurriak ezarri dituela sexu-jazarpena edo sexuagatik jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.

m) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du zehapenik jaso Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako hondakinen edo ingurumen arloko arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, salbu eta neurri zuzentzaile egokiak gauzatu baditu eta zehapena ordaindu badu.

n) Pertsona edo entitate eskatzaileak bete du desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota, edo egiaztatu du neurri alternatiboak ezarri dituela hori bete dadin.

o) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du onuradun izateko debekurik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

p) Pertsona edo entitate eskatzaileak, aurreko hiru urteetan, ez du laguntzarik lortu minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduari lotuta (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua).

Laguntzarik jaso badu, laguntza horien zenbatekoa..... eurokoa da.

q) Hala badagokio, laguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea da Eraikal 2026 programako laguntzen IV. lerroko aurkeztu den eraikinetako bat egitea sustatzen duena.

r) Entitate eskatzaileak enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartu du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

s) Aldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasoz gero, gainfinantzaketarik ez eragiteko konpromisoa hartzen du entitate eskatzaileak.

Jasota geratzen da adierazpen honetako funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo omisioak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena duela.

Eta horrela jasota gera dadin, eta deialdiaren oinarrietan aurreikusitako ondorioak izan ditzan, aipatutako dirulaguntzak emateko prozedurarako deialdia egiten duen administrazio-organoaren aurrean, erantzukizunpeko adierazpen hau egiten dut,(e)n, XX(e)ko.....aren.....(e)(a)n.

(Izena, sinadura eta, hala badagokio, entitatearen zigilua)